# Euskal Aditzari Begira

## Aditz-lokuzioak

Izena + izan(ukan)

Aditz laguntzailea

Aspektua

Izena + egin, hartu, eman

NOR-NORI-NORK sailekoak

**EAB 10**

# EUSKAL ADITZARI BEGIRA

gure aditza modu erakargarrian aurkezteko beste ahalegin bat da.
Gaurko bitarteko digitalak baliatuz,
euskal aditza pantailara eraman nahi dugu;
eta pantailatik, ikusle-ikaslearen hizkuntza-corpusera.

## HELBURU NAGUSIA

**HIZKUNTZA ZUZENTASUNEZ ERABILTZEA**

«Hizkuntzaren elementu formal eta mekanismoei buruz hausnartzea, haren maila fonologiko, morfosintaktiko, lexiko-semantiko eta testualetan, eta mezuen ekoizpen eta harrera baldintzei buruz, komunikazioko gizarte-testuinguruetan, berezko ekoizpenak arautzeko gaitasuna garatzeko helburuz».

«Hizkuntzaren irakaskuntzak *Euskal hizkuntza eta literatura* arloaren mugak gainditzen ditu, hizkuntza ia curriculum osoan irakatsitako ikaskuntza guztien euskarri delako, eta eskolako ikaskuntza-prozesuak, neurri handi batean, hizkuntza-gaitasunaren garapenaren mende daudelako».

*Oinarrizko curriculum-diseinua*

# EUSKAL ADITZARI BEGIRA

## Aditz-lokuzioak

AURKIBIDEA

Izena + izan(ukan)....................3

Aditz laguntzailea....................7

Aspektua....................9

Izena + egin, hartu, eman....................11

NOR-NORI-NORK sailekoak....................13

IZENA:............................................................................................MAILA:...............................................

# Aditz-lokuzioak

## Izena + *izan* edo *ukan*

**ari izan**

Marina eta biok hurbiltzen ............................................ (NOR-NORI) lapurrari. Armatua dago. Langileei mehatxuka ............................................ (NOR-NORI). Langileetako bat, ezkutuen dagoena, sakelako telefonoaz hitz egiten ............................................ (NOR). Lapurrak ikusten badu, bertan akabatuko du; baina, lapurra bankuko zuzendariari aginduak ematen ................................ (NOR-NORI).

**nahi izan**

—Zer ........................................ (NOR-NORK)? —galdetu zidan, haserre—. Zerbait ................................ (NOR-NORK) pasa zaitez bihar goizean bulegotik. Hitz egingo dugu.

—Ez da beharrezkoa izango. —erantzun nion—. Gutun hau eman ................................ (NOR-NORI-NORK); izan ere, etxera joandakoan zerbait irakurtzeko izan dezazun ........................................ (NOR-NORK).

**behar izan**

Bihar, goizean goiz joan ........................................ (NOR-NORK) lanera. Izan ere, eguerdiro platerean zerbait jartzeko lanera joan ........................................ (NOR). Beraz, lanera joan aurretik zure etxetik pasa ........................................ (NOR-NORK), hogei minutu lehenago altxatu eta zazpietako tranbia hartu ........................................ (NOR-NORK). Hori guztia egin aurretik, semeari gosaria prestatu ........................................ (NOR-NORI-NORK).

**komeni izan**

—Sendagileari bisita egitea ........................................ (NOR-NORI). Zauri horrek ez dizu bakerik emango, bestela. —Esan zidan.

Nik banekien, baina, zer ........................................ (NOR-NORI). Ondotxo jakin ere. Toki hartatik denbora gehiago galdu gabe alde egitea ........................................ (NOR-NORI). Une hartan polizia okerreko bidean jartzea ........................... (NOR), hori zen garrantzitsuena.

**ahal izan /ezin izan**

—Egin ........................................ (NOR-NORK)? –galdetu zidan, urduri. Aztoratzen hasia nintzen eta une batez; «–ez, ................................ (NOR-NORK) egin! —esateko zorian egon nintzen–». Orduan, pentsatu nuen: zurgin bati deitu ........................................ (NOR-NORI-NORK). Hark berehala egingo du. Eta, erantzun nion —Bai egin ........................................ (NOR-NORK).

—Hori da nire mutila! —oihukatu zuen—.Zuri esker ileapaindegira joan ........................... (NOR).

IZENA:........................................................................MAILA:.............................................

## SENTIPENAK

| | | |
|---|---|---|
| gose izan | hotz izan | beldur izan |
| egarri izan | bero izan | lotsa izan |

*Koadro bakoitzaren goialdean daukazuen adibideari jarraikiz, osatu esaldiak.*

**Zergatik?**

Gose nai**zelako** jaten dut.

......................................... edaten dute.

......................................... janzten dugu zamarra.

......................................... eransten duzu jertsea.

......................................... ez zoazte zinemara.

......................................... ez diot esan maite dudala.

**Zeren beldur?**

Ni iluntasuna**ren beldur** naiz. Hau da, iluntasunak **beldur ematen** dit.

Zu .................................................. . Hau da, ..............................................................

Gu .................................................. . Hau da, ..............................................................

Zuek ............................................. . Hau da, ..............................................................

Haiek ........................................... . Hau da, ..............................................................

**NORK** + ***egon***

Ahoa lehorra daukat. Egarri**ak nago**.

Deabrua ikusi dugu. ..........................................................................................

Hamar ordu daramate ezer jan gabe. ..........................................................................

Itxi leiho guztiak. ..........................................................................................

Ez diogu esango Lideri hemen zagoela. .......................................................................

Itzali berogailu hori. ......................................................................................

IZENA:............................................................................MAILA:............................................

| bakarrik doazenean | | |
|---|---|---|
| **NOR** | **NORK** | |
| ari izan<br>komeni izan<br>mintzo izan<br>falta izan<br>bizi izan | nahi izan<br>behar izan<br>gogo izan<br>nahiago izan<br>ahal izan<br>ezin izan<br>balio izan | behar izan<br>uste izan<br>espero izan<br>merezi izan<br>maite izan<br>gorroto izan<br>damu izan |

| beste aditz batekin doazenean | | | |
|---|---|---|---|
| | **ezin / ahal** | **behar / nahi** | **ari** |
| NOR | joan ahal da | joan behar du | joaten ari da |
| NOR-NORI | joan ahal zaio | joan behar zaio | joaten ari zaio |
| NOR-NORK | egin ahal du | egin behar du | egiten ari da |
| NOR-NORI-NORK | egin ahal dio | egin behar dio | egiten ari zaio |

***Bulegoan***

**KRISTINA** —Zu, Xabier, **etorri ahal zara** arratsaldean hondartzara?

**XABIER** —Gustatuko litzaidake, ez pentsa, baina **ezin dut**.

**KRISTINA** —Eta zu, Koldo, **etorri ahal zara**?

**KOLDO** —Lanpetuta nabil, baina **ahal badut** joango naiz, bai. Halere, zera esan behar dizuet: bulegoa garbitu **behar da** eta erosketak egin **behar dira**.

**XABIER** —Nik kiroldegira **joan behar dut** lehenengo eta, gero, web-orria **osatu behar dut**. Ez dut astirik izango.

**KRISTINA** —Nik kontu handiz **ibili behar dut**, eskuak oso minberatuak dauzkat eta. Horregatik, ezingo naiz lan horietan hasi.

**KOLDO** —Bost minutu barru, gutxi gorabehera, pakete bat **heldu behar zaigu**. Paketearekin batera datorren albarana **sinatu beharko zaio** mezulariari. Hori ez egiteko aitzakiarik ba al daukazue?

**XABIER** —Ez dakit zergatik jartzen zaren horrela, Susana. Jasoko dut nik paketea eta sinatuko dut nik albarana.

**KRISTINA** —Oso ongi. Ni Gorkarekin geratu naiz Ken Zazpiren kontzertua entzutera joateko eta musikariak bertatik bertara ikusteko. Horretarako, goiz joan eta ahalik eta gehien **hurbildu behar gatzaizkie**.

IZENA:........................................................................MAILA:..............................................

## aditz-lokuzioen aspektua

*Idatzi esaldiak putuzko lerroen gainean, (aditza + aditz-lokuzioa) egitura erabiliz.*

| | | | |
|---|---|---|---|
| ɸ | nahi izan | Nereak guzti-guztia jakin nahi zuen. | *(jakin )* |
| | | ........................................................................ | *(etorri )* |
| | behar izan | ........................................................................ | *(jan )* |
| | | ........................................................................ | *(ibili )* |
| | ahal izan | ........................................................................ | *(ikusi )* |
| | | ........................................................................ | *(jantzi )* |
| | ezin izan | ........................................................................ | *(eraman )* |
| | | ........................................................................ | *(hartu )* |
| **-t(z)en** | ari izan | ........................................................................ | *(janzten)* |
| | | ........................................................................ | *(idazten)* |
| | | ........................................................................ | *(erortzen)* |
| **-t(z)ea** | komeni izan | ........................................................................ | *(ikastea)* |
| | | ........................................................................ | *(jartzea)* |
| | | ........................................................................ | *(izatea )* |
| | falta izan | ........................................................................ | *(egitea)* |
| | | ........................................................................ | *(jasotzea)* |
| | | ........................................................................ | *(ematea)* |
| | merezi izan | ........................................................................ | *(biltzea)* |
| | | ........................................................................ | *(joatea)* |
| | | ........................................................................ | *(kentzea)* |
| **-t(z)eak** | balio izan | ........................................................................ | *(begiratzeak)* |
| | | ........................................................................ | *(egiteak)* |
| | | ........................................................................ | *(apurtzeak)* |

IZENA:........................................................................MAILA:...............................................

| izena + egin | | | izena + eman | izena + hartu |
|---|---|---|---|---|
| agur egin | igeri egin | oka egin | aditzera eman | aintzakotzat hartu |
| alde egin | ihes egin | oles egin | amore eman | aintzat hartu |
| amets egin | irribarre egin | on egin | argi eman | aurre hartu |
| barre egin | iruzur egin | ospa egin | argitara eman | elkar hartu |
| bat egin | iseka egin | otoitz egin | aurre eman | kargu hartu |
| birao egin | jolas egin | piper egin | beldur eman | kontu hartu |
| bultza egin | kaka egin | porrot egin | bide eman | kontuan hartu |
| dei egin | kale egin | postura egin | bizkar eman | lo hartu |
| enbarazu egin | kalte egin | putz egin | haize eman | loak hartu |
| errieta egin | kasu egin | sasieskola egin | hitz eman | min hartu |
| estropezu egin | kontu egin | so egin | kontu eman | parte hartu |
| eztul egin | leher egin | txistu egin | lotsa eman | suak hartu |
| gainezka egin | lo egin | txiza egin | lur eman | |
| gogor egin | men egin | uko egin | min eman | |
| hanka egin | min egin | zin egin | musu eman | |
| hitz egin | muzin egin | zintz egin | su eman | |
| hots egin | negar egin | zirkin egin | | |
| huts egin | oihu egin | | | |

Goiko zerrendetatik aukeratu aditz-lokuzioak eta idatzi esaldi bat.

**izena + egin**

1 ..............................................................................................

2 ..............................................................................................

3 ..............................................................................................

4 ..............................................................................................

5 ..............................................................................................

**izena + eman**

1 ..............................................................................................

2 ..............................................................................................

3 ..............................................................................................

**izena + hartu**

1 ..............................................................................................

2 ..............................................................................................

IZENA:............................................................................MAILA:...............................................

Konturatu denean, agur egin digu eta bulegoan sartu da. Emazteari dei egin dio telefonoz, erosketak berak egingo dituela esateko. Izan ere, emaztea lagun baten hiletara joatekoa da eta ez da etxera itzuliko lagunari lur eman arte. Gorkak gorroto die hiletei.

Goian azpimarratutakoak NOR-NORK bihurtu eta idatzi behean, dagokien tokian.

Konturatu denean, ............................................ eta bulegoan sartu da. .................................. .................. telefonoz, erosketak berak egingo dituela esateko. Izan ere, emaztea lagun baten hiletara joatekoa da eta ez da etxera itzuliko ..................................................... . Gorkak .................................................. .

Liburuak

ZUBIRI, Hilari ; ZUBIRI, Entzi: *Euskal gramatika osoa,* Didaktiker, Bilbo, 2000.

ZUBIZARRETA, Aitor; DORRONSORO, Mikel; ZUBIMENDI, Josemari: *Gramatika gaitasuna lantzen,* Euskara Zerbitzua, Glotodidaktika-lanak. Gasteiz, 2000.

EUSKALTZAINDIA: *Euskaltzaindiaren arauak,* Euskaltzaindia, Bilbo, 1994.

Orri elektronikoa

www.hiru.com

# Euskal Aditzari Begira

**Aditz multzoaren egitura**

**Adizki jokatugabeak -I-**

**Adizki jokatugabeak -II-**

**Adizki jokatugabeak -III-**

**Adizki jokatugabeak -IV-**

**Adizki jokatuak -I-**

**Adizki jokatuak -II-**

**Adizki jokatuak -III-**

**Agintera, baldintza eta aditz arazleak**

**Aditz-lokuzioak**

**Zenbait aditz bihurri**

**Ekoizlea:**

artez
IKUS-ENTZUNEZKOAK

Getaria, 18-behea
01010-Gasteiz
Tel-faxa: 945200608
artez@ikusentzunezkoa.euskalnet.net
www.artez-bai.com

LG.- VI- 470 / 08

Ikasmaterial honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egokitasun-aitormena du.
**2009/12/18**